

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO 2017. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	EUSKARA SAILA
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitziburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala.
XEDEA:	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-12
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2017ko aurrekontuan: 1.500 €
HELBURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea - Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisajea euskaraz egon dadin
EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik aurrera, 2017 amaitu arte.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	<ul style="list-style-type: none"> - Errotulua euskaraz idatzita egotea. - Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak eta frogagiria aurkeztuta, diru laguntza jasotzeko modua izango du. - Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. - Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea
ESKATZAILEAK:	<p>Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute diru laguntza.</p> <p>Diru laguntzaren onuradunek, errotulua ipintzeagatik hirigintzako lizentzia eskatu behar duten kasuetan, hoberia izango dute, tasaren %75ekoa.</p> <p><u>Lagunduko diren elementuak:</u></p>
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA PROGRAMARA:	<ul style="list-style-type: none"> 1- Establezimenduetako kanpoko errotulua 2- Autoetako errotulazioa 3- Toldoetako errotulazioa 4- Binilozko errotuluak



PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:

Diruz lagunduko ez direnak:

- 1- Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak.
- 2- Izen propio, toponimo eta abizenak bakarrik adierazten dituzten errotuluak.
- 3- Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da, ez diseinua, ez ipintzearen kostua, ezta diseinuaren bestelako osagaiak ere.
- 4- Bermeoko Udalagaz zorra daukana.

Gehienez eskura daitekeen diru-kopurua 300 €koa izango da. Zenbateko horretatik beherako eskaririk balego, kostuaren %75 eskura daiteke.

Ebazteko prozedura:

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gehienez, hamabost eguneko epean.

Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria beteta
- Errotuluaren izena jasotzen duen agiria
- Jatorrizko faktura
- Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)
- Ipinitako errotuluaren argazkia

ERLAZIONATUTAKO
AGIRIAK:



79- Euskeraz
errotuluak jartzeagat